

"LOIOLAKO SAN INAZIO IKASTETXEA" ZENTRO INTEGRATUAN ESKOLA-KONTSEILUKO KIDEAK HAUTATZEKO PROZEDURAREN ARAUAK

I. TITULUA

PROZEDURAREN HASIERA

1. ARTIKULUA Hauteskundeak egiteko data eta egutegia, Ikastetxeko Zuzendari Nagusiak finkatuko ditu, gutxienez hogeい egin naturaleko aurrerapenarekin.
 2. ARTIKULUA Hauteskundeen eguna eta egutegia finkatutakoan, Zuzendari Nagusiak idatziz jakinaraziko dio data Hezkuntza-Elkarteko kide bakoitzari.
 3. ARTIKULUA
 1. Hauteskunde-prozesu guztsia antolatu eta kontrolatzeko, Hauteskunde-Batzordea osatuko da, bertan ondoko hauek hartuko dutelarik parte: Zuzendari Nagusiak, Lehendakaria izango dena; Instituzio Titularreko ordezkari batek, irakasle batek, ikasleen guraso batek, eta DBHko 1. ziklotik aurrerako ikasle batek.
 2. Hauteskunde-Batzordeko kideak, euren karguarenagatik direnak salbu, zozketa bidez hautatuko dira.
 3. Hauteskunde-Batzordeko kide izateko onarpena, borondatez emango da. Behin onarpena eman ostean, Batzordeko kideek ezin izango dute beren burua Ikastetxeko Eskola-Kontseiluan beren estamentuaren ordezkari izateko hauteskundeetan aurkeztu.
 4. ARTIKULUA Hauteskunde-Batzordeak honako eskuduntzak dauzka:
 1. Estamentu bakoitzaren hauteskunde-errolda egin eta onartzea.
Hauteskunde-errolda egindakoan, jendaurrean ipini beharko da, estamentu desberdinak kide guztiak konsultatu ahal izango duten leku batean.
 2. Hautagai-zerrenda onartu eta aditzera ematea.
Bakarkako hautagai-zerrendak, aurkezten direneko estamentuari dagokion hauteskunde-errolda behin betirako argitaratzen direnetik kontatzen hasita zazpi egin naturalen barruan aurkeztu beharko dira. Hautagaien zilegitasuna egiaztu ostean, Hauteskunde-Batzordeak, egunean bertan ipiniko du hautagai-zerrenda jendaurrean, hauteskunde-erroldak jarri zireneko leku berean.
 3. Hauteskunde-Mahaien eraketa.
Hauteskunde-Batzordeari dagokio estamentu bakoitzeko hauteskunde-prozedura zehatza kontrolatu behar duen Hauteskunde-Mahai bakoitza behar bezala eratzearen ardura.
 4. Erreklamazioak.
Hauteskunde-Batzordeak ebatziko ditu hauteskunde-prozesuan zehar aurkez litzkeen erreklamazioak. Horretarako, honako arauak hartuko dira kontuan:
Erreklamazio guztiak idatziz aurkeztu beharko dira. Lehendakariari zuzenduko zaizkio, eta garbi adierazi beharko da erreklamazioa egitearen zergatia zein den.
Erreklamazioak aurkezteko epeak hauek dira (egun naturaletan):
 - a) Hauteskunde-errolda..... argitaratu denetik 2 egun.
 - b) Hautagai-zerrenda onartu edo atzera botatzeko erabakia eman denetik 2 egun.
 - c) Hauteskundeak hautagai hautatuen zerrenda argitaratu denetik 2 egun.
- Hauteskunde-Batzordeak, erreklamazioa jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita bi egun naturalen barruan ebatziko ditu erreklamazioak.
- Batzordeak erreklamazioen inguruan hartutako erabakiak ezin dira helegin.

II. TITULUA

ESKOLA-KONTSEILUKO KIDEEN HAUTAKETA

I. Kapitulua

TITULARAREN ORDEZKARIEN HAUTAKETA

5. ARTIKULUA Ikastetxeko Eskola-Kontseiluko Titularrak askatasunez izendatzen ditu Titular ordezkariak.

II. Kapitulua

IRAKASLEEN ORDEZKARIEN HAUTAKETA

6. ARTIKULUA Ikastetxeko Eskola-Kontseiluko irakasleen 4 ordezkariak honela hautatuko dira: HH – LH - DBH – BATX Mailetako Klaustroek ordezkari bana hautatuko dute.

7. ARTIKULUA Irakasleen ordezkariak hautatzeko orduan, Klaustro Nagusia osatzen duten irakasle guztiak izango dira hautesle, eta hautagaiak, berriz, Hauteskunde-Batzordeak hautagai-zerrendan sartu dituen irakasleak izango dira.

8. ARTIKULUA Honako prozedurari jarraituko zaio irakasleen ordezkariak hautatzeko:

1. Hauteskunde-Mahaia eratuko da.

Esklusiboki ordezkariak hautatzeko deitutako Klaustro Nagusiaren ezohiko bilkuraren eratuko da Hauteskunde-Mahaia, honako hauek osatuko dutena: Zuzendari Nagusiak (bera izanik lehendakari), bi bokalek, hots, Ikastetxearen denbora gehien daraman irakaslea eta denbora gutxiengoa daramana (azken honek egingo dituela idazkari lanak). Bat baino gehiago izanez gero ezaugarri hauek dauzkaten irakasleak, zozketa bidez egingo da euren arteko aukeraketa.

Bilkura baliozkoa izan dadin, gutxienez hautesleen erdia gehi batek egon beharko dute presente. *Quorum*-ik ez balego, deialdi berri bat egingo da lehenengo bilkurarako zegoenetik 24 ordutara, eta bigarren hau baliozkoa izango da, bertaratutakoena kopurua edozein izanik.

2. Bozketa.

Bozketa pertsonala, askea, zuzena eta sekretua izango da.

Mailako Klaustroei buruzko bozketa egingo da. Hautesle bakoitzak dagokion Mailako Klaustroen inguruan emango du botua. Botu-txartel bakoitzean izen bat ipiniko da. Beren postontzietan botu gehien eskuratu dituzten hautagaiak izendatuko dira ordezkari.

Idazkariak hauteskunde-prozesuaren Akta bat prestatuko du, bertan gertakari guztien eta, lortutako botuen arabera ordenatuta, hautagai-zerrenden berri eman beharko duela.

III. Kapitulua

GURASOEN ORDEZKARIEN HAUTAKETA

9. ARTIKULUA Ikastetxeko ikasleen gurasoek edota beren ordezkari legalek hautatuko dituzte Ikastetxeko Eskola-Kontseiluko gurasoen ordezkariak.

10. ARTIKULUA Gurasoen ordezkariak hautatzeko hautesleak, Ikastetxeko ikasleen sendi guztiak dira (aita, ama edo tutorea). Guraso bakoitzak botu bakar bat eman dezake.

Hauteskunde-Batzordeak onartutakoak bakarrik izan daitezke hautagai.

11. ARTIKULUA Honako prozedurari jarraituko zaio gurasoen ordezkariak hautatzeko:

- Honako hauek osatuko dute Hauteskunde-Mahaia: Zuzendari Nagusiak (bera izanik lehendakari), eta hautesle-zerrenda osatzen dutenen artean zozketa publikoz aukeratutako lau bokalek. Bokalerik gazteena arituko da idazkari lanetan.

Zozketan ordezkaoak ere aukeratuko dira, inork izendapenari uko egingo liokeen kasurako.

Gurasoen Elkartea proposaturiko gurasoek, edota Ikastetxeko ikasleen 20 gurasoren sinaduraz abalatutakoek, kontu-hartzale gisa parte hartu ahal izango dute, betiere Hauteskunde-Batzordeari 48 ordu lehenago jakinaraziz.

Hauteskunde-Mahaia hiru ordu jarraian emango ditu zabalik, hautesle guztiak bozkatu ahal izan dezaten.

Hautesleak, bozkatu baino lehen, identifikatu egin beharko dira Hauteskunde-Mahaiaaren aurrean.

- Bozketa pertsonala, askea, zuzena eta sekretua izango da. Botu-txartel bakoitzean gehienez ere izen bakarra ipini ahal izango dira.

Botu gehien eskuratzen dituzten bi hautagaiak izendatuko dira ordezkari. Berdinketa kasuan, zozketa egingo da.

Idazkariak hauteskunde-prozesuaren Akta bat prestatuko du, bertan gertakari guztien eta, lortutako botuen arabera ordenatuta, hautagai-zerrenden berri eman beharko duela.

IV. Kapitulua IKASLEEN ORDEZKARIEN HAUTAKETA

12. ARTIKULUA

Ikasleek bi ordezkari izango dituzte: bata DBHko ikasleek hautatuko dute, eta bestea Batxilergoko ikasleek. Hauteskunde-Batzordeak dagokien mailarako onartu dituenak izango dira hautagai.

13. ARTIKULUA Honako prozedurari jarraituko zaio Maila bakoitzeko ikasleen ordezkaria hautatzeko:

- Hauteskunde-Mahaia eratuko da.

Honako hauek osatuko dute Hauteskunde-Mahaia: Zuzendari Nagusiak (bera izanik lehendakari), eta Hauteskunde-Batzordeak DBHko eta/edo Batxilergoko sekziokako ordezkarien artean aukeratutako bi bokalek. Bokalerik zaharrena arituko da idazkari lanetan.

Ordezkariak ere aukeratuko dira, inork izendapenari uko egingo liokeen kasurako.

- Bozketa.

Bozketa pertsonala, askea, zuzena eta sekretua izango da. Botu-txartel bakoitzean, dagokion Mailako hautagaietako bakar baten izena ipiniko da.

Beren Mailan botu gehien eskuratzen dituzten hautagaiak izendatuko dira ordezkari. Berdinketa kasuan, zozketa egingo da.

Idazkariak hauteskunde-prozesuaren Akta bat prestatuko du, bertan gertakari guztien eta, lortutako botuen arabera ordenatuta, hautagai-zerrenden berri eman beharko duela.

V. Kapitulua

ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEN ORDEZKARIEN HAUTAKETA

14. ARTIKULUA

Ikastetxeko Eskola-Kontseiluko Administrazio eta Zerbitzuetako langileen ordezkaria, aipatutako langile horiek hautatuko dute.

15. ARTIKULUA

Administrazio eta Zerbitzuetako langileen ordezkaria hautatzeko, Titularraren pean lan egiten duten guztiak izango dira hautesle, eta hautagaiak, berriz, Hauteskunde-Batzordeak hautagai gisa onartutakoak izango dira.

16. ARTIKULUA Honako prozedurari jarraituko zaio Administrazio eta Zerbitzuetako langileen ordezkaria hautatzeko:

1. Hauteskunde-Mahaia eratuko da.

Honako hauek osatuko dute Hauteskunde-Mahaia: Zuzendari Nagusiak (bera izanik lehendakari), eta Hauteskunde-Batzordeak hautesle-zerrenda osatzen duten artean zozketa publikoz aukeratutako bi bokalek. Bokalerik gazteena arituko da idazkari lanetan.

Zozketan ordezkoak ere aukeratuko dira, inork izendapenari uko egingo liokeen kasurako.

2. Bozketa.

Bozketa pertsonala, askea, zuzena eta sekretua izango da. Botu-txartel bakoitzean izen bakar bat ipiniko da.

Botu gehien eskuratzen dituen hautagaia izendatuko da ordezkari. Berdinketa kasuan, zozketa egingo da.

Idazkariak hauteskunde-prozesuaren Akta bat prestatuko du, bertan gertakari guztien eta, lortutako botuen arabera ordenatuta, hautagai-zerrenden berri eman beharko duela.

III. TITULUA

17. ARTIKULUA Estamenturen bateko hautagaien kopurua hutsik dauden postuen berbera edo txikiagoa balitz, Hauteskunde-Batzordeak hautaketarik egin beharrik gabe izendatuko lituzke Kontseiluko kide.

18. ARTIKULUA Ordezkari hautatuen mandatuak lau edo bi urteko epea duela kontuan izanik, epe horretan posturen bat hutsik geldituko balitz (Ikastetxea uzteagatik, edota, ikasleen kasuan, Mailaz aldatzeagatik), bozketen aktan bigarren lekua eskuratu zuen hautagaia izendatuko da Kontseiluko kide. Halakorik ez balego, hautaketa berri bat egingo da.

19. ARTIKULUA Kontseiluko kideak ezin daitezke baliogabetu, kasu batean izan ezik: epai judizial baten bidez, beren eskubideak egikaritzeko gaitasuna galtzean.

20. ARTIKULUA Hautaketa-procedura antolatu duen Batzordeak hautagaiak izendatu dituenetik hamar eguneko epean, Zuzendari Nagusiak Eskola-Kontseilua eratzeko deia egingo die kide guztiei.

21. ARTIKULUA Ikastetxeko Hezkuntza-Elkarteko sektoreren batek Eskola-Kontseiluko kideak egozgarri zaizkien zioengatik aukeratu ez izanak ez du Eskola-Kontseiluaren eraketa bertan behera utziko.

2016ko urria

**NORMAS DE PROCEDIMIENTO PARA LA ELECCIÓN DE LOS MIEMBROS DEL
CONSEJO ESCOLAR EN EL CENTRO INTEGRADO
"COLEGIO SAN IGNACIO DE LOYOLA"**

TITULO I

INICIACIÓN DE PROCEDIMIENTO

ARTÍCULO 1.- La fecha de celebración de las elecciones, así como su calendario, se fijará al menos, con veinte días naturales de antelación, por el Director General del Centro.

ARTÍCULO 2.- Fijados la fecha y el calendario de celebración de las elecciones, el Director General les comunicará la fecha por escrito a cada uno de los estamentos integrantes de la Comunidad Educativa.

ARTÍCULO 3.-

1. A efectos de organización y control de todo el proceso electoral se constituirá la Junta electoral integrada por: El Director General, que será su Presidente; un representante de la Institución Titular, un profesor, un padre de alumno, y un alumno a partir del 1º ciclo de la E.S.O.
2. Los miembros de la Junta Electoral, a excepción de los que sean en razón de su cargo, serán elegidos por sorteo.
3. La aceptación de la condición de miembro de la Junta Electoral será voluntaria. Producida la aceptación no cabrá la posibilidad de que los miembros de la Junta se presenten como candidatos en las elecciones para representantes de su estamento en el Consejo Escolar del Centro.

ARTÍCULO 4.- Son competencias de la Junta Electoral:

1. Confeccionar y aprobar el censo electoral de cada uno de los estamentos.
Una vez confeccionado el censo electoral deberá hacerse público en el lugar en que cada uno de los integrantes de los distintos estamentos pueda consultarla.
2. Admitir y proclamar candidaturas.
Las candidaturas individualizadas deberán presentarse durante los siete días naturales siguientes a la publicación definitiva del censo electoral correspondiente al estamento por el que se presentan.
Comprobada la validez de las candidaturas la Junta electoral las proclamará y hará públicas el mismo día en el lugar en que se hubieran expuesto los censos electorales.
3. Constitución de las Mesas Electorales.
La Junta electoral es responsable de la constitución de cada una de las Mesas electorales que han de controlar el proceso electoral particular de cada estamento y de la forma que se determina para cada uno de ellos.
4. Reclamaciones.
La Junta electoral resolverá las reclamaciones que se presenten a lo largo del proceso electoral, de conformidad a la siguiente normativa:
Todas las reclamaciones deberán ser hechas por escrito y dirigidas al Presidente con indicación clara del motivo de la reclamación.
Los plazos para interponer las reclamaciones son las siguientes, en días naturales:
a) Censo electoral: 2 días desde su publicación.

- b) Candidaturas: 2 días desde la decisión sobre su aceptación o denegación.
- c) Elecciones: 2 días desde la publicación de la lista de candidatos electos.

La Junta electoral resolverá las reclamaciones en el plazo de dos días naturales contados a partir del día siguiente al de recepción.

Las decisiones adoptadas por la Junta sobre las reclamaciones a ella planteadas son inapelables.

TITULO II

ELECCIÓN DE LOS MIEMBROS DEL CONSEJO ESCOLAR

Capítulo I

ELECCIÓN DE LOS REPRESENTANTES DEL TITULAR

ARTÍCULO 5.-

Los representantes del Titular en el Consejo Escolar del Centro son nombrados libremente por el citado Titular.

Capítulo II

ELECCIÓN DE LOS REPRESENTANTES DE LOS PROFESORES

ARTÍCULO 6.-

La elección de los 4 representantes de los profesores en el Consejo Escolar del Centro se realizará de la siguiente manera: un representante elegido por cada Claustro de Nivel (INFANTIL - PRIMARIA - ESO - BACHILLERATO) respectivamente.

ARTÍCULO 7.-

En la elección de representantes de los profesores serán electores todos los profesores componentes del Claustro General, y elegibles aquellos profesores cuya candidatura haya sido proclamada por la Junta electoral.

ARTÍCULO 8.-

La elección de los representantes de los profesores se efectuará con arreglo al siguiente procedimiento:

1. Constitución de la Mesa electoral.

En sesión extraordinaria del Claustro General convocada exclusivamente para el tema de la elección de representantes se constituirá la Mesa electoral, integrada por el Director General que la presidirá, dos vocales que serán el profesor más antiguo y el más reciente en el Centro (que actuará como Secretario). De existir más de uno con estas características la elección se decidirá por sorteo entre ellos.

Para que la reunión sea válida deberán estar presentes en la misma la mitad más uno de los electores. De no conseguirse el quórum, se efectuará nueva convocatoria 24 horas después de la señalada para la primera, siendo entonces válida con independencia del número de asistentes.

2. Votación.

La votación será personal, libre, directa y secreta.

Se procederá a la votación de los Claustros de Nivel En cada papeleta se señalará un nombre. El candidato que haya obtenido mayor número de votos será proclamado representante electo. En caso de empate se procederá por sorteo.

Cada elector se pronunciará sobre los candidatos que corresponden a su propio Claustro de Nivel. Del proceso electoral se levantará por el Secretario un Acta en la que hará constar todas las incidencias y la lista de candidatos, ordenada por el número de votos obtenido.

Capítulo III ELECCIÓN DE LOS REPRESENTANTES DE LOS PADRES

- ARTÍCULO 9.-** La elección de los representantes de padres en el Consejo Escolar del Centro se realizará por los padres del alumnado del Centro o sus representantes legales.
- ARTÍCULO 10.-** En la elección de representantes de padres son electores todas las familias (padres o madres o tutores) del alumnado del Centro. Cada Padre y cada Madre del colegio tienen derecho a un solo voto.
Son elegibles aquellos electores cuya candidatura haya sido proclamada por la Junta electoral.
- ARTÍCULO 11.-** La Elección de representantes de padres se efectuará con arreglo al siguiente procedimiento:
1. La Mesa Electoral estará compuesta por el Director General, que la presidirá y cuatro vocales elegidos por sorteo público entre el censo de electores. El vocal más joven actuará de Secretario.
En el sorteo se elegirán suplentes en previsión de que alguno no acepte la nominación.
Podrán actuar como interventores, previa notificación a la Junta electoral con 48 horas de antelación, los padres propuestos por la Asociación de Padres o avalados para ello por la firma de veinte padres de alumnos del Centro.
La Mesa electoral permanecerá abierta durante tres horas sin interrupción para que todos los electores puedan ejercer su derecho al voto.
Los electores se identificarán ante la Mesa electoral para ejercer su derecho al voto.
 2. La votación será personal, libre, directa y secreta. En cada papeleta se podrá señalar hasta un máximo de un nombre. Los dos candidatos que hayan obtenido mayor número de votos serán proclamados representantes electos. En caso de empate se procederá por sorteo.
Del proceso electoral se levantará por el Secretario un Acta en la que hará constar todas las incidencias y la lista de candidatos ordenada por el número de votos obtenidos.

Capítulo IV ELECCIÓN DE LOS REPRESENTANTES DE LOS ALUMNOS

- ARTÍCULO 12.-** Los dos representantes de los alumnos serán elegidos uno por el alumnado de E.S.O. y otro por los alumnos de Bachillerato. Son elegibles los electores cuya candidatura haya sido proclamada por la Junta Electoral para el nivel correspondiente.
- ARTÍCULO 13.-** La elección del representante de los alumnos de cada Nivel se efectuará con arreglo al siguiente procedimiento:
1. Constitución de la Mesa electoral.
La Mesa electoral estará integrada por el Director General, que la preside, y dos vocales elegidos por la Junta electoral entre los delegados de sección de la ESO y/o Bachillerato. La elección se hará por sorteo. El vocal de mayor edad actuará de Secretario.
Se elegirán suplentes en previsión de que alguno no acepte la nominación.
 2. Votación.
La votación será personal, libre, directa y secreta. En cada papeleta se señalará un solo nombre de entre los candidatos correspondientes a su propio Nivel.
Los candidatos que hayan obtenido mayor número de votos en sus respectivos niveles serán proclamados representantes electos. En caso de empate se procederá por sorteo.
Del proceso electoral se levantará por el Secretario un Acta en la que hará constar todas las incidencias y la lista de candidatos ordenada por el número de votos obtenidos.

Capítulo V

ELECCIÓN DEL REPRESENTANTE DEL PERSONAL DE ADMINISTRACIÓN Y SERVICIOS

ARTÍCULO 14.- La elección del representante del personal de administración y servicios en el Consejo Escolar del Centro se realizará por dicho personal.

ARTÍCULO 15.- En la elección del representante del personal administrativo y de servicios son electores todos los que presten sus servicios bajo la dependencia del Titular, y elegibles los electores cuya candidatura haya sido proclamada por la Junta Electoral.

ARTÍCULO 16.- La elección del representante del personal de administración y de servicios se efectuará con arreglo al siguiente procedimiento:

1. Constitución de la Mesa electoral.

La Mesa electoral estará integrada por el Director General, que la preside, y dos vocales elegidos por sorteo público realizado por la Junta electoral entre el Censo de electores. El vocal de menor edad actuará de Secretario.

En el sorteo se elegirán suplentes en previsión de que alguno no acepte la nominación.

2. Votación.

La votación será personal, libre, directa y secreta. En cada papeleta se incluirá un solo nombre.

El candidato que haya obtenido mayor número de votos será proclamado representante electo. En caso de empate se procederá por sorteo.

Del proceso electoral se levantará por el Secretario un acta en la que hará constar todas las incidencias y la lista de candidatos ordenada por el número de votos obtenidos.

TITULO III

ARTICULO 17.- Si en alguno de los estamentos el número de candidatos fuese igual o menor que el de puestos a cubrir, la Junta Electoral los proclamará miembros del Consejo sin necesidad de elección.

ARTICULO 18.- Si durante el período de duración del mandato de los representantes electos, que es de cuatro o dos años, se produjera alguna vacante, por cese en el Colegio o cambio de nivel en el caso de los alumnos, se designará para cubrir la baja al candidato que hubiera obtenido el siguiente lugar en el acta de la votación. Si no lo hubiera se hará nueva elección por el tiempo que quede sin transcurrir.

ARTICULO 19.- Los miembros del Consejo no pueden ser revocados de su nominación, excepto en el caso que perdieran, por sentencia judicial, la capacidad para el ejercicio de sus derechos.

ARTICULO 20.- En el plazo de diez días, a contar desde la fecha de proclamación de los candidatos electos por la Junta que ha organizado el procedimiento de elección, el Director general convocará a los distintos miembros para la sesión de constitución del Consejo Escolar.

ARTICULO 21.- Si alguno de los sectores de la Comunidad Educativa del Centro no eligiera sus representantes en el Consejo Escolar por causas imputables a dichos sectores, este hecho no invalidará la constitución del Consejo Escolar.

Octubre 2016
